

«Guri berezko graziarik aitortzen ez zaigula esatetik, gure umorea egiten hastera pasatu garela uste dut»

Nork egiten du umorea, zeinentzat, zeinen bizkar? «Ez jarri horrela neska, txiste bat besterik ez da». Ez al gaituzte txisteek ere eraikitzen? Umorea ez da tentelkeria, ez da hutsala. Ane Labakak urteak daramatza umorea ikertzen eta garbi dauka: «feminismoak konkistatu beharreko lursaila da».

Algara mutilatuez ari zara liburuan; mutilatuak, bortxaz kenduak. Mutilatuak, mutilaren neurrira jarriak, moldatuak.

Mutilazio fisikoei buruz agian hitz egiten da, baina gero badaude sinbolikoak izan daitezkeen mutilazio batzuk. Ez da kasualitatea justu plazerarekin eta gozamenarekin lotuak izatea, sexualitatearena horietako bat izan daiteke eta umorearena ere hor kokatzen da, sinbolikoki erauzten den zerbait bezala.

Umorea plazerari lotua, batbateko ateraldiak pizten duen algarari, kontrolatu ezin denari. Berez garrantzirik gabekoa balitz bezala.

Beti entzuten duguna norbaitek txiste bat bota eta zuk aurpegi arraroa jartzen duzunean: 'Jesus, neska, ez da hainbesterako, txiste bat bakarrik da'. Baina konturatu beharko genuke txisteek zenbat eraikitzen gaituzten. Liburuen helburuetako bat bada umorearen garrantzia aldarrikatzea edo behintzat mahai gainean jartzea: ez, ez, hau ez da gauza hutsal bat, besterik gabeko gauza bat, zer bai eta zer ez markatzeko sekulako

mekanismoa da, txikitatik argi uzteko zein izan daitekeen zure bidea eta zein ez. Hortik ateratzen denak modu askotara sufritzen du eta umorearen bidezko markaketa ere sufritzen du. Inposatutako arauak betetzen ez dituen umorearekin ere seinalatzen da; batzuek eutsi egingo diote eta beste batzuk iskin egiten saiatuko dira, berriz ere araura bueltatzeko eta umorearen objektu ez izateko. Inork ez dugu umorearen objektu izan nahi.

Mutilatua, mutilen neurrira eginda. Umore propioa mutilatzeaz gain, zeri barre egin erakusten digute?

Bea Egizabali lapurtu diot mutilatuaren zentzu bikoitza. Umetan eta ikasgeletan gertatzen diren gauzak oso presente izan ditut. Arreta jarritz gero azkar konturatuko gara ikasgeletan grazioso figura normalean mutikoei betetzen dutela. Eta ez dakit neskek ez ote dugun ikasten mutiko grazioso horrek botatzen ditueni barre egiten. Gero une bat iristen da, non zure buruari esaten diozun, 'ba niri gauza horiek ez didate graziarik egiten'. Alor guztietan maskulinoa hartu izan da neutrotzat, unibertsaltzat, eta horregatik akaso gu benetan zeharkatzen gaituzten gauzei buruz barre egin beharrean hainbeste inporta ez zaizkigun edo hainbeste gurutzatzen ez gaituzten horiei barre egiten bukatzen dugu.

Bea Egizabalek dioenez, emakumeak «trabesti kulturalak» gara.

Azkenean, jaso dugun kultura gehiena, plazakoa edo jendaurrekoa gutxienez, gizonezkoen

bidez iritsi zaigu eta hortik ikasi dugu zer den barregarria eta zer ez. Horretara egokitu gara. Erreferentzia faltak nola-bait ukatu digu lan bat egitea, sormena lantzea eta gure buruari galdetzea benetan zerk egiten digun grazia. Kode batzuk ikasi ditugu eta horien barruan mugitzen gara. Azken urteetan lantzen eta esploratzen ari garen eremu bat da, baina orain gutxi arte esploratzeari berari uko egin diogu, egin genezakeela ere ez dugu sinistu, beti ikusi dugulako beste bat umorea egiten eta beste zerbaiti buruz.

Liburuan diozu une batean umorea ia obsesio bihurtu zaizula. Azken urteetan dezente eta ertz askotatik landu duzun lursaila da.

Niretzat polita izan da. Batetik, umorearen inguruan aritzen diren autoreak irakurtzen eta aztertzen aritu naiz eta, aldi berean, plazan praktikan jartzen edo behintzat umorearen inguruan arreta handia jartzen aritu naiz. Bi bide paralelo izan dira, gogoetarako eta kontrasterako modua izan dut, ez da gauza abstraktu bat izan, aldiro ekarri dut lurrera, plaza- ra, eta horrek asko eman dida- la uste dut.

Lehen ikasgelak aipatu dituzu. Bertso eskolan ere azkar konturatu omen zinen zirto- laria bestea zela, grazia egiten zuena bestea zela. Emakumeak oso onak omen zineten «hunkitzen».

Bertso eskolan, umetatik, Oihana Iguaran eta biok izan gara emakume bakarrak. Eskolarteko sariketetan beti esaten ziguten onak ginela hausnarketan eta diskurtsoa garatzen.

ANE LABAKA MAYOZ

BERTSOLARI ETA IKERTZAILEA

«Algara mutilatuak; umorearen aho bikotasunaz, feminismotik».

Susa argitaletxearen Lisipe bildumako azkena

sinatzen du sortzaile lasartearrak.

Hausnarketarako gonbita da, umorea oso

gauza serioa baita.



Argazkiak: Jon URBE | FOKU

Nire ustez, gainera, egokitzen zitzaiguna baino askoz heldutasun handiagoarekin. Beti arrazoi potoloekin, 'potolokeriatan', bertsolaritzan esaten dugun bezala. Guk bagenekien gazte sariketetan zer txalotzen eta zer saritzen zitzaigun; zuretik aritu beharrean, beste norbaiti irakurri eta azpimarratutako arrazoi potoloak botatzen genituen. Hori beti nabarmentzen ziguten. Inork ez zuen aipatzen gure umorerako gaitasuna. Inork ez badu zure gaitasun hori nabarmentzen, bide hori bazterten joaten zara, beldurra hartzen diozu. Uste dut ez dela kasualitatea emakume bertsolari askok zirtoarekin eta berezko graziarekin lotutako ariketei diegun beldurra. Oso gaztetatik igartzen duzu zer egin behar duzun grazia egiteko, baina ez baduzu hori egin nahi, zer egin behar duzu? Hori berrasma-

«Oso gaztetatik igartzen duzu zer egin behar duzun grazia egiteko, baina ez baduzu hori egin nahi, zer egin behar duzu? Hori berrasmatzen ari garela uste dut. Kostatu zaigu, baina ahalduntzen ari gara umorearen eremuan»



tzen ari garela uste dut. Kostatu zaigu, baina ahalduntzen ari gara umorearen eremuan.

Liburuan jasoa: Botereak umorearen kontrolean inbertitzen duen esfortzuaren handia ikusirik, ez da burugabekeria umoreak duen gaitasun eraldatzailea tamainakoa izan daitekeela pentsatzea.

Horren kontziente izan behar gara. Uxoari [Anduaga] irakurri niona ere gustatzen zait. Haren hitzetan, umorea gauza hutsaltzat hartzea bera ere eraikuntza soziala da, hain zuzen, botereak egiten duena berari komeni zaiolako. Horrekin lotuta boterea nahi duten mugimendu batzuek oso erraz ulertu dute umorea tresna indartsua dela. Botererako bide bat da umorea, arma indartsua; bai gauzak bere horretan mantentzeko eta bai gauzak aldarrikatu eta iraultzeko.

Hortik umorearen aho bikotasuna.

Izan ere, umoreak digestioa errazten du, komunikatzeko erreminta bikaina da.

Bai, zalantzarik gabe. Irantzu Varela esaten duen bezala, umorez eraikitzen diren mezuak eta ideiak errazago iristen dira jendearengana, beste toki batetik iristen dira.

Ez dago norabide bakarreko umorea.

Garrantzitsua da zeinek erabiltzen duen eta zein posizio edo talaiaetik, non dagoen kokatuta gizartearen botere harreman horietan. Orain arte goitik beharako umorea egin da askotan, boteredunak botererik ez duena seinalatuz eta, gainera, botererik ez izatea nahi zuelako, sistema betikotzeko.

Baina kontrakorako ere balio du. Behetik gora egiten den

umoreak balio handia dauka kohesiorako, zu bezala daudenekin partekatzeko, gutasuna eraikitzeko. Zapalduta daudenak batzeko eta goikoa seinalatzeko arma oso indartsua da umorea. Umorea bide irudimentsua da, pedagogia egitea eskatzen duena, beti esan diren gauzak beste modu batera esatea eskatzen duena.

Balio du gutasuna eraikitzeko eta balio du «gu» horretatik kanpo dagoena seinalatzeko.

Bai, gauza askotan ikusten diot umoreari aho bikotasuna. «Gu»-tik kanpora dagoena seinalatzeko eta erridikulizatzeko ere balio du, arautik kanpo dagoena araura behartzeko. Tresna indartsua bezain arriskutsua da, segun zeinek erabiltzen duen.

Liburu honen helburua hausnarketarako gonbita egi-

«Jurisprudentziaren
ideia indartsua da.
Legeetan
garrantzitsua da
aurretik idatzi dena
eta umorean ere
garrantzitsua da
aurretik egin dena,
aurretik egin diren
txiste horietatik
sortzen dira txiste
berriak, ez dira
hutsetik sortzen»



tea da. Ez da egia absolutu bat, liburu ireki bat da. Umorea-
ren gaia mahai gainean jarri
nahi dut, garrantzia daukala
aldarrikatu eta nola erabiltzen
dugun hausnartzera animatu.

**Gatozen bertsoaren ohol-tza
gainera. Azken urteotan ema-
kume bertsolariak egiten ari
zareten hausnarketa kolekti-
boaren eta lanaren emaitza
majo igartzen da. Orain arte
entzun gabekoak entzuten ari
dira –«alua» hitza, hilekoa,
emakumearen sexurako gri-
na– eta horrek mugimendua
sortzen du entzuleen artean,
asko deskolokatu egiten ditu.**
Bai. Asko gustatzen zait Maia-
len Lujanbiok esaten duena:
horretara iritsita, emakume
bertsolariari ausarta izan dela
aitortzen zaio, orain arte aipa-
tu gabekoa aipatu duelako.
Txokantea da, baina oraindik
ez da umoretzat hartzen. Txa-
lotzen da, ausarta dela uler-
tzen da, baina horretan gera-

tzen da, eta ez da graziosotzat
hartzen, ez da umoretzat har-
tzen.
Eta bertsolaritzan bezala
gertatzen da etxe askotan eta
kuadrilla askotan. Ateraldi be-
zala ulertzen da, baina hortik
barre egitera tarte bat dago.
Uste dut oso indartsua dela ju-
risprudentziaren ideia. Legee-
tan jurisprudenzia dagoen
bezala, umorean ere badago.
Legeetan garrantzitsua da au-
rretik idatzi dena eta umorean
ere garrantzitsua da aurretik
egin dena, aurretik egin diren
txiste horietatik sortzen dira
txiste berriak, ez dira hutsetik
sortzen. Eta, noski, orain arte
eraiki dena badakigu zer den.
Zerotik hasi behar da eta kode
berriak eraiki behar dira.
Ez da kasualitatea elkarriz-
ketatutako emakume bertsola-
ri denek esaten dutena; zuk
nahi duzun umorea egitera
ausartzeko giro eroso bat izan
behar duzu, giro gozo bat,
umorea egitea biluztea ere ba-

delako. Bada armak hartzea
baina bada armak uztea ere,
zure kontraesanei buruz kan-
tatzea, zure argi-ilunei kanta-
tzea, hori oso ariketa indar-
tsua da.
**«Ez da kasualitatea» bezalako
saioak lursail interesgarria
dira horretarako?**
Plazaren banaketaren ondo-
rioz, askotan ez dugu aukera
izan elkarrekin kantatzeko, es-
perimentatzeko, probatu ga-
beko lursail horiek lantzeko.
Saio horiek aukera bat dira,
bai. Eta gero ahalduntze ber-
tso-eskola ere hor dago. Niri
hasieratik arreta deitu zidan
zenbat umore egiten den ber-
tan. Beti sinetsarazi digute ez
dugula umorerako balio eta
bat-batean, emakume mordoa
elkartu larunbat goiz batean
eta ia bertsoaldi guztietan
umore printzak egoten dira.
Espazioaren, publikoaren eta
kantukideen ekuazio horrek
pisu handia dauka; ez da ka-

sualitatea gure artean ari gare-
nean umore pila bat sortzea.
**Batzuetan bertsolariak bere
buruari barre egiten dio, bes-
teek egin baino lehen. Onin-
tza Enbeitak, adibidez, aitor-
tzen du liburuan hori
askotan egin duela.**
Bai. Pentsa daiteke askatzailea
eta parez parekoa dela, baina
ez da horrela. Zuk zeure bu-
ruari buruz egiteak ez du esan
nahi parez parekoa denik, nor-
baitek kanpotik egingo lizuke-
ena erreproduzitzen ari zarela-
ko. Ondokoak esan aurretik
lodia nagoela, nik esango dut
eta libre. Baina goitik behera
ari zara.
Liburuan aipatzen dudan
Hannah Gadsby umoregile
australiarraren kasuak asko
mugitu ninduen. Umoregile
oso sonatua da, sari mordoa
lortu dituen. Une batean ge-
ratzea erabaki zuen eta baka-
rrizketa batean azaldu zuen
zergatia. Bere buruaz gehiago

ez barre egitea erabaki zuen,
ez baitzen ez sana ez senda-
tzailea beretzat, aldrebes, bere
burua egurtzen ari zela senti-
tzen zuelako.
**Askotan esaten da errazagoa
dela negar eginaraztea barre
eginaraztea baino. Barre egi-
narazteko kode partekatu bat
behar da, konfiantza, ausar-
dia... emakume bertsolariek
sortu dituzuen espazio propio
horietan badago giro hori.**
Bai, badago. Kode partekatu
horretan garrantzitsua da
umorea ere badela desdrama-
tizatzeko bide bat, zerbait ga-
rrantzia kentzeko modu bat.
Baina emakumeek gure senti-
tzen ditugun espazioek,
ideiek, erreferentziek ez dau-
kate garrantzirik gizarte mai-
lan. Orduan, ezin diegu kendu,
ez diogulako garrantzirik
eman oraindik. Nola desdra-
matizatuko duzu zerbait
oraindik ez bada iritsi garran-
tzia izatera; nola egingo duzu

zerbaiti buruzko umorea, oraindik ez bada umorerik gabeko diskurtso batean aipatu.

Liburuan Maialen Lujanbiok kontatutako pasarte bat jaso duzu, oso esanguratsua. Andoaingo saio batean gertatutakoa. Gai-jartzaileak bazkaria egiteari buruzko gai bat proposatu zien bertsolariei eta honakoa gertatu zen: «Orduan batek bazekien, besteak ez... zen lentejekin bueltaka. Pentsa zer gai tontoa! Eta orduan konturatu nintzen; izan zen oso bisuala. Lehenengo aldiz ikusten nituen lehenengo lerroko emakumeak disfrutatzen algara batean! Zergatik? Beraiek zirelako espezialista handienak gai horretan. Publiko guztian derrepente beraiek ziren autoritate bat. Eta mikrotik ari ziren hitz egiten beraien munduaz...».

Adibide hori sekulakoa da. Hori da gertatzen dena, horri buruz ari naiz liburuan.

Umorea eta politikoki zuzenaren kaiola. Berez estua da eta bertsolaritzan, bat-batean eta jendaurrean ari zarela, estuagoa ezta? Onintza Enbeitak dioenez, «zure etxean bakarrik zaudenean, zure memoriak baldin badauzka hiru kaxoi, zu joan zaitezke hirugarren kaxoira, baina, bat-batean ari zarenean, lehenengo kaxoira zoaz! Eta lehenengo kaxoian denok dauzkagu gutxien hausnartuta dauzkagun gauzak; lehenengo kaxoian dauzkagu estereotipoak».

Bat-batean sortzen duzu eta bat-batean jasotzen da. Batzuetan iragazki gabe sortzen duzu, urgentzia horrek baldintzatuta, eta entzuleak ere iragazki gabe jasotzen du, hain zuzen,



umorea gozamen horrekin lotzen delako. Bakarkako lan batean seriotik norbaiten diskurtsoa entzun eta zerbaitekin ez bazaude ados, zerbait ez bazazu gustatzen, marra gorria askoz errazago detektatzen duzu. Umorearen kasuan alerta jaitzita bezala egoten gara.

Hala ere, azken urteotan plaza aldatzen ari da eta sektore baten txaloak selektiboagoak edo zorrotzagoak dira, ezta?

Bai, baina hala ere oraindik oso gogorra da umore ateraldi baten aurrean barre ez egitea. Horrek posizionamendu bat eskatzen dizu eta nahiz eta grazia-rik ez egin, barre egiten baduzu onartzen edo aitortzen ari zara. Bertsoen kasuan hori muturrera eramaten da, txaloak daudelako tartean.

Andoni Egañak esaten duenez, bertsolaritzan publiko gero eta atomizatuago dago. Ondorioz, bati grazia egiten dionak beste bati ez dio egiten.

Bertsolaritza eta gizartea, esango nuke. Oso une interesgarria bizitzen ari gara eta umoreak balio du une hori neurtzeko, mugak non dauden ikusteko.

Umore hartzaile izatetik umore sortzaile izatera pasatzea. Une horretan al zaudete emakume bertsolariak?

Baietz esango nuke. Oraindik ere gizonen partetik iskin egiten zaio, asko neurtzen da zer esan daitekeen eta zer ez politikoki zuzenaren marran. Uste dut asko aldatu dela neska gazte bati nola kantatzen zaion orain eta lehen. Aldi berean, emakumeak umore sortzaile bihurtzeak gizonezkoak orain arte kantatu gabeko gaien inguruan kantatzera behartzen ditu, gu mutilatzen garen bezala beraiek ere oraindik beraienak sentitzen ez dituzten kodeetan aritzera behartzen ditu horrek. Uste dut une interesgarria dela.

Umore objektu izatetik umore subjektu izatera pasatzea ez da egun batetik besterako aldaketa, jarrera aktiboa eta lanketa eskatzen ditu.

Bai, entrenamendua behar da eta sekulako lanketa egin behar da. Ainhua Agirreazaldegik aipatzen duenez, urte askotan emakume bertsolariak jasotzen ditugun zapalkuntzen inguruan bildu eta kohesionatu gara, 'biktima' aktibo bezala, baina zapalkuntza horiek seinalatzen. Umoreak beste zerbait eskatzen du, jarrera aktibo batera eramaten zaitu, eragiteko modu batera, bigarren pauso batera. Uste dut orain hor gaudela. Guri berezko grazia-rik aitortzen ez zaigula esate-tik, gure umorea egiten hastera. Egin eta egin, probatu eta probatu, horretan ari garela esango nuke.

Aldarrikatzen duzunez, umorea feminismoak konkistatu beharreko eremua da.

«Bertsotan umorea bat-batean sortzen duzu eta bat-batean jasotzen da.

Batzuetan iragazki gabe sortzen duzu, urgentzia horrek baldintzatuta, eta entzuleak ere iragazki gabe jasotzen du, hain zuzen, umorea gozamen horrekin lotzen delako»

Bai, eta uste dut feminismoak hori ulertu duela azken urteotan eta bide hori egiten ari dela. Umoreak ez dio egoerari garrantzirik kentzen, berdin jarraitzen du larria izaten, baina umorez aldarrikatzeak ez du garrantzirik gabeko zerbait bihurtzen. Uste dut ikuspuntu hori aldatu dela. Umoreak balio du borrokatzeko, taldea egiteko, zauriak sendatzeko, bizirauteko...

Behingoz irribarre erditik irribarre osora igarotzea, horixe helburua.

Hori mutilazio horri aurre egitearekin lotzen dut; orain arte barre egin dugun gauzei buruz barre egin beharrean, gu zeharkatzen gaituzten gaiei barre egitea eta ulertzea irribarre osoa guri ere badagokigula. Ulertzea umoreak gizarte osoarentzako izan behar duela, ez erdi batek erdi batentzako egiten duen zerbait.